

Arrigorriagako Udal Euskaltegia



Denok ezagutzen dugu "Sugea eta sagarra"-ren istorio barregarria. Horren ondorioz mundua apaizez eta moralistez beterik dago. Horren ondorioz bizitza aldapa-bukagaitza bihurtu zitzaigun. Horren ondorioz sortu ziren yankiak.

Horren ondorioz sartu zen "El Corte Ingles" gure etxeetan.

Baina istorio horrela izan ez balitz, zer gertatuko zatekeen? Hori saiatuko naiz, denbora laburrez, zuei azaltzen. Sortzearen zazpigarren eguna zen:

Jaungoikoa erabat haserre sugeari hurbildu zitzaion.

- Aizu, zergatik ez diozu Ebari sagarra ekaini?
- Bai, bai, hori egin _____ gero ni istorio honen "gaiztoa" izango _____.
- Norbaiti tokatu behar zaio lan hori. Oraingoz zu eta biok gaude mundu honetan eta zuk lan zikina egingo _____ nork egingo _____?
- Hor konpon Maria Anton! .Gainera, Ebak edo Adanek sagarra (jan) _____ kristorena gertatuko _____.
- Zer gertatuko _____, ba?
- Sagarra jan _____, aurrerantzean lan egin beharko _____ etxeko ogia irabazteko. Lan egin behar izan _____, Adanek egunero ofizinara joan beharko _____ eta Ebak etxean gelditu beharko _____ eta honen ondorioz matxismoa eta klasismoa sortuko _____.
- Noski, bestela, nola arraio montatuko _____ nik neure txiringittoa?
- Hor dago gakoa, Ebak sagarra koskatu ez _____, ezin izango _____ ez elizarik ez apaizik ez kruzadarik sortu eta denak lasai biziko _____ moralistarik gabe.
- Baina, orduan, ez _____ inor nitaz gogoratuko.
- Jakina, eta guk nahi adina bizio edukiko _____.
- Baina horrela izan _____ jende guztia komunista izango _____.
- Komunista ez, anarkista baizik.
- "Horreur" eta Franco, Hitler, Fraga , Reagan sortzea alferrik izango _____.
- Bai, jendea beste era batean gurpilatuko _____. Horrez gain, amutzat sagar bat jartzea lelokeria bat iruditzen zait. Adan ez da hain kirtena eta ez _____ horrekin engainatuko.
- Arrazoia duzu: sagarraren ordeztatu marihuana jarriko diot.

Eta horrela gertatu zen. Adan oso biziosoa zenez, bi aldiz pentsatu gabe marihuana osoa dastatu zuen eta gero gertatutakoa gauza ezaguna da.

Eta horrela ez bazan sar nazatela kalabazan, eta irten nadila Arrigorriagako Plazan.



Denok ezagutzen dugu "Sugea eta sagarra"-ren istorio barregarria. Horren ondorioz mundua apaizez eta moralistez beterik dago. Horren ondorioz bizitza aldapa-bukagaitza bihurtu zitzaigun. Horren ondorioz sortu ziren yankiak.

Horren ondorioz sartu zen "El Corte Ingles" gure etxeetan.

Baina istorio horrela izan ez balitz, zer gertatuko zatekeen? Hori saiatuko naiz, denbora laburrez, zuei azaltzen. Sortzearen zazpigarren eguna zen:

Jaungoikoa erabat haserre sugeari hurbildu zitzaion.

- Aizu, zergatik ez diozu Ebari sagarra ekaini?
- Bai, bai, hori egin BANU gero ni istorio honen "gaiztoa" izango NINTZATEKEEN.
- Norbaiti tokatu behar zaio lan hori. Oraingoz zu eta biok gaude mundu honetan eta zuk lan zikina egingo EZ BAZENU nor egingo LUKE ?
- Hor konpon Maria Anton !.Gainera, Ebak edo Adanek sagarra (jan) BALUTE kristorena gertatuko ZATEKEEN.
- Zer gertatuko ZATEKEEN, ba?
- Sagarra jan BALUTE , aurrerantzean lan egin beharko ZUKETEN etxeko ogia irabazteko. Lan egin behar izan BALUTE , Adanek egunero ofizinara joan beharko ZUKEEN eta Ebak etxean gelditu beharko ZUKEEN eta honen ondorioz matxismoa eta klasismoa sortuko ZIRATEKEEN.
- Noski, bestela, nola arraio montatuko NUKEEN nik neure txiringittoa?
- Hor dago gakoa, Ebak sagarra koskatu ez BALU, ezin izango ZENUKEEN ez elizarik ez apaizik ez kruzadarik sortu eta denak lasai biziko ZIRATEKEEN moralistarik gabe.
- Baina, orduan, ez ZATEKEEN inor nitaz gogoratuko.
- Jakina, eta guk nahi adina bizio edukiko GENUKEEN.
- Baina horrela izan BALITZ jende guztia komunista izango ZATEKEEN.
- Komunista ez, anarkista baizik.
- "Horreur" eta Franco, Hitler, Fraga , Reagan sortzea alferrik izango ZATEKEEN.
- Bai, jendea beste era batean gurpilatuko ZATEKEEN. Horrez gain, amutzat sagar bat jartzea lelokeria bat iruditzen zait. Adan ez da hain kirtena eta ez ZENUKE horrekin engainatuko.
- Arrazoa duzu: sagarraren ordez marihuana jarriko diot.

Eta horrela gertatu zen. Adan oso biziosoa zenez, bi aldiz pentsatu gabe marihuana osoa dastatu zuen eta gero gertatutakoa gauza ezaguna da.

Eta horrela ez bazan sar nazatela kalabazan, eta irten nadila Arrigorriagako Plazan.